

## Donostian, 2005.eko otsailaren 25ean.

Andres Urrutia, euskaltzainburua,  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Andres Iñigo, Jagon sailburua,  
Adolfo Arejita,  
Jean-Louis Davant,  
Jean Haritschelhar,  
Emile Larre,  
Txomin Peillen,  
eta Piarres Xarritton euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea eta  
Juan Jose Zearreta kudeatzailea, zego-  
kien gaietan.

### Ezin etorriak eta ahalak:

J.A. Arana Martijak, ahala X. Kintanari;  
M. Azkaratek, ahala J. Haritschelharri;  
P. Goenagak, ahala J. Haritschelharri;  
H. Knörrek, ahala A. Urrutiari;  
P. Ondarrak, ahala A. Iñigori;  
P. Salaburuk, ahala B. Oihartzabali;  
I. Sarasolak, ahala B. Oihartzabali;  
P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10,25etan hasi da Gi-  
puzkoako Foru Diputazioaren jauregiko  
batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri  
diren euskaltzainak eta bertan direla.

**1. Euskaltzainburuaren agurra eta Jean Haritschelharri eskerrak.** A. Urrutia euskaltzainburu berriak euskaltzainei agur egin eta J. Haritschelharri eskerrak eman dizkio azken urteotan Euskaltzaindiaren gidaritzan egindako lan bikainagatik

**2. Aurreko akta onartzea:** J. L. Lizundiaren ohar batekin aurreko bilkuraren akta ontzat eman da.

### 3. Eskuartekoak

**3.1. J. L. Lizundiari zorionak:** Euskaltzainburuak Akademiaren izenean J. L. Lizundiari zorionak eman dizkio, euskara arloan berriki, 2005-2-12an, jaso duen «Durangi Uria» sariagatik.

**3.2. Elkartasun-gutunak:** Azken egunetan gertaturiko polizi gora-beherengatik, Euskaltzainburuak Martxel Etxehandi euskaltzain urgazleari eta Aita Juan Joxe Agirrerri atxikimendu-gutun bana bidali die elkartasuna adierazteko.

### 4. Hizkuntza gaiak

**4.1. Onomastika:** Onarturiko «Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak» deritzon txostena euskaltzainen artean banatu da.

**4.2. Hiztegi Batua: b-berriz zerrendari egin zaizkion oharrak aztertzen eta eztabaidatzen jarraitzea.** P. Salabururen ezin etorriagatik, idazkariaren zuzendaritzapean *belarketa*-tik *berbal*-erainoko oharrak aztertu eta onartu dira.

### 5. Azken ordukoak

X. Kintanak Ekuadorrera oraintsu eginiko bidaiaren berri laburra eman du, datoren hilerako horri buruzko txostena aginduz.

Bukaeran *Zalduetik Zaldibarrera toponimian barrena* liburua banatu da euskaltzainen artean.

Bilkura 14etan amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria